4.º Coherencia del proyecto con la estrategia y modelo de negocio de la empresa (hasta 20 puntos)

Azpi-irizpide honetan, honako hauek baloratuko dira: proiektua enpresaren estrategian zenbateraino txertatuta dagoen, proiektuaren egokitasuna enpresaren egungo egoeran, proiektuaren ideia hertze-maila, proiektuaren ondoriozko lehia-abantailak erregistratzeko espero den epea eta lehia-abantaila horien aurreikus daitekeen iraunkortasuna.

En este subcriterio se valorará en qué medida el proyecto está integrado en la estrategia de la empresa, la pertinencia del proyecto en la coyuntura actual de la empresa, el grado de maduración de la idea del proyecto, el plazo esperado para registrar las ventajas competitivas derivadas del proyecto y la durabilidad previsible de dichas ventajas competitivas.





c) Proiektuaren definizioa eta aurkeztutako proposamenaren kalitatea (15 puntu, gehienez)

c) Definición del proyecto y calidad de la propuesta presentada (hasta 15 puntos)

1) Proiektuaren plangintza eta kudeaketa (5 puntu, gehienez)

1.º Planificación y gestión del proyecto (hasta 5 puntos)

Azpi-irizpide honetan baloratuko da proiektuak zein neurritan duen bideragarritasun tekniko eta ekonomikoaren azterketa on bat, plan zehatz, errealista eta koherente bat, tarteko mugarriekin, baliabideen eta arduradunen arrazoizko aurreikuspen eta esleipen bat, arriskuen ebaluazio egoki bat eta kontingentzien plan bat.

En este subcriterio se valorará en qué medida el proyecto tiene un buen análisis de viabilidad técnica y económica, un plan detallado, realista y coherente, con hitos intermedios, una previsión y asignación razonable de recursos y responsables, una adecuada evaluación de riesgos y un plan de contingencias.

2) Proiektuaren helburuak, adierazleak eta jarraipen-sistematika (5 puntu, gehienez)

2.º Objetivos, indicadores y sistemática de seguimiento del proyecto (hasta 5 puntos)

Azpi-irizpide honetan, honako alderdi hauek proiektuak zein neurritan duen baloratuko dira: proiektuak emaitza- (teknologia- eta enpresa-helburuak) eta garapen-helburu argiak, helburu horiek adierazle egokiak izango dituzten jarraipena eta ebaluazioa egiteko, eta kontrol-sistema egokia, aurrerapenaren jarraipena egiteko, kalitatea ziurtatzeko, aldaketen kontrolerako eta arriskuen kudeaketarako.

En este subcriterio se valorará en qué medida el proyecto contiene objetivos claros de resultado (tecnológicos y empresariales) y de desarrollo, con indicadores apropiados para su seguimiento y evaluación y un sistema adecuado de control, seguimiento del progreso, aseguramiento de calidad, control de cambios y gestión de riesgos.

3) Proiekturako jarritako baliabide tekniko eta humanoak (5 puntu, gehienez)

3.º Medios técnicos y humanos destinados al proyecto (hasta 5 puntos)

Azpi-irizpide honetan baloratuko da eskatzaileak proiektua gauzatzeko baliabide tekniko eta giza baliabide egokiak esleitu dituen eta proiektuari balio espezifiko emango dioten kanpoko lankidetzek parte hartzea aurreikusten duen.

En este subcriterio se valorará si la solicitante ha destinado los medios técnicos y humanos adecuados para la ejecución del proyecto y si prevé la participación de colaboraciones externas que aporten valor específico al proyecto.

d) Konpromiso soziala eta iraunkortasuna (2

d) Compromiso social y sostenibilidad (hasta





puntu, gehienez)

2 puntos)

Irizpide honetan, kontuan hartuko da eskatzaileak ziurtagiriak eta /edo planak izatea arlo hauetan: ingurumenaren iraunkortasuna, euskararen sustapena eta erantzukizun sozial korporatiboa.

En este criterio se tendrá en cuenta que la entidad solicitante disponga de certificaciones y/o planes en materia de sostenibilidad medioambiental, promoción del euskera y responsabilidad social corporativa.

e) Lan-baldintza egokiak (gehienez 3 puntu).

e) Condiciones laborales adecuadas (hasta 3 puntos).

Irizpide honetan plantillaren batez besteko ordainsaria baloratuko da. Horretarako, Bizkaiko lantokietako langile guztien Gizarte Segurantzako gertaera arruntengatiko hileko batez besteko kotizazio-oinarria lortuko da, eskaera-dataren aurre-aurreko bi hilabeteetako LIZn agertzen diren pertsona guztiak zenbatuta, haien lanaldia edo kontratu-mota edozein dela ere. Halaber, lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileen ordainsaria ere kontuan hartuko da, Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean sartuta ez badaude ere, eta kasu horretan, Gizarte Segurantzaren araubide orokorraren pareko kotizazio-oinarria hartuko da kontuan.

En este criterio se valorará la remuneración media de la plantilla. Para ello se obtendrá la base media mensual de cotización por contingencias comunes a la Seguridad Social de todas las personas trabajadoras en centros de trabajo de Bizkaia, computando todas las personas que figuren en la RNT de alguno de los dos meses inmediatamente anteriores al de fecha de solicitud, independientemente de su jornada o tipología de contrato. También se considerará la remuneración de las personas socias trabajadoras de cooperativas de trabajo asociado aun cuando no estuvieran incluidas en el Régimen General de la Seguridad Social para las que se tomará una base de cotización asimilada a la del régimen general de la Seguridad Social.

Irizpide honetan 3 puntu emango zaizkie batez besteko oinarriak 3.000tik gorakoan dituzten eskatzaileei, 2 puntu 2.700dik gorakoak direnean eta puntu 1 2.400dik gorakoak direnean.

En este criterio se otorgarán 3 puntos a solicitantes cuyas bases medias sean superiores a 3.000, 2 puntos cuando sean superiores a 2.700 y 1 punto cuando sean superiores a 2.400.

f) Genero-berdintasuneko ibilbidea (2 puntu, gehienez).

f) Trayectoria en igualdad de género (hasta 2 puntos).

Irizpide honetan 2 puntu emango dira eskatzaileak berdintasunaren arloko

En este criterio se otorgarán 2 puntos cuando la solicitante disponga de un





ziurtagiri edo bereizgarri ofizial bat duenean enpresa mailan.

certificado o distintivo de carácter oficial en materia de igualdad a nivel de empresa.

g) Gizonen eta emakumeen parte-hartze orekatua proiektuan (3 puntu, gehienez).

g) Participación equilibrada de hombres y mujeres en el proyecto (hasta 3 puntos).

Irizpide honetan, kontuan hartuko dira proiektuan parte hartuko duten eskatzaileko langileetako gizonen eta emakumeen kopurua eta proiektuan gizonek eta emakumeek duten erantzukizunen banaketa. Puntu bat emango da emakumeek proiektuan parte hartzen dutenen % 50 gainditzen badute, eta bi puntu % 70 gainditzen badute. Puntu bat emango da proiektua emakumeek zuzentzen badute.

En este criterio se tendrá en cuenta el número de hombres y mujeres de la plantilla de la entidad solicitante que participan en el proyecto y la distribución de responsabilidades. Se otorgará un punto si las mujeres superan el 50% de participantes en el proyecto y dos puntos si supera el 70%. Se otorgará un punto si el proyecto está liderado por mujeres.

2. Irizpide horiek erabiliz organo instruktoreak aurreko ebaluazioa egingo du eta ebaluazio batzordeari bidaliko dio, horrek azken balorazioa dakarren ondorioen txostena egin dezan; hortik aterako da aurkeztutako proiektuen sailkapena.

2. Con estos criterios se llevará a cabo una evaluación preliminar por parte del órgano instructor, que remitirá a la comisión evaluadora para que ésta emita un informe de conclusiones con una valoración final, de la que se obtendrá la ordenación de los proyectos presentados.

3. Gutxienez 40 puntu eskuratu beharko dira, jarduerak edo proiektuak laguntza jaso ahal izan dezan.

3. Se deberá obtener una puntuación mínima de 40 puntos para poder obtener la condición de actividad o proyecto subvencionable.

4. Berdinketa gertatuz gero, ponderazio handiena duen irizpidean lortutako puntuazioa hartuko da kontuan. Berdinketak jarraitzen badu, bigarren ponderazio handiena duen irizpideko puntuazioa hartuko da kontuan. Eta berdinketak jarraitzen badu, eskabideen sarrera-ordena hartuko da kontuan.

4. En caso de empate se atenderá a la puntuación obtenida en el criterio con mayor ponderación. Si persistiere el empate se atenderá a la puntuación en el criterio con segunda mayor ponderación. Si aún persistiere el empate se atenderá al orden de entrada de las solicitudes.





18. oinarria. *Ebazpena.*

1. Espedientearen instrukzioa amaitutakoan, ebaluazio-batzordeak aztertu eta irizpena eman ondoren, organo instrukzio-egileak ebazpen-proposamena egingo du, eta Ekintzailatza, Talentua eta Enpresen Lehiakortasuna Bultzatzeko Zuzendaritza Nagusiko titularrari helaraziko dio. Azken horrek, era berean, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari igorriko dio ebazpen-proposamena, eta hark dagokion foru-aginduren bidez ebatziko du. Ebazpenean erabakiko da bai dirulaguntzak ematea, bai ezatea edo ez ematea.

2. Ebazpenak zerrenda ordenatu bat jasoko du, emandako laguntzena, ezespenena eta eman ez direnena, eta, hala badagokio, horietako bakoitzari emandako puntuazioa adieraziko du, aurreikusitako balorazio-irizpideen arabera eta ezesteko eta ez emateko arrazoen arabera. Eskabiderik aurkeztu ez bada edo, oinarri hauetan jasotako arrazoiengatik, aurkeztutako eskabideetako bat ere ez bada iristen lehiatasera edo lehiatzeko gutxieneko puntuaziora, deialdiko laguntzak esleitu gabe geratuko dira.

3. Dirulaguntza emateko ebazpenean, baldintza bereziak ezarri ahal izango dira, baldin eta uste bada ezen, proiektuen izaera berezia edo gertatzen diren beste inguruabar batzuk direla bide, egoki dela halako baldintzak ezartzea, hartara kasu bakoitzari egokitze eta aplikatzeko foru-dekretu honetan edo aplikatzekoak diren gainerako arauetan xedaturikoa.

Base 18. *Resolución.*

1. Concluida la instrucción del expediente, previo estudio y dictamen de la comisión evaluadora, el órgano instructor formulará la propuesta de resolución, que elevará a la persona titular de la Dirección General de Emprendimiento, Talento y Competitividad Empresarial. Ésta, a su vez, elevará la propuesta de resolución a la diputada foral de Promoción Económica, quien resolverá mediante la oportuna orden foral. En la resolución se acordará tanto el otorgamiento de las subvenciones, como la desestimación o su no concesión.

2. La resolución contendrá una relación ordenada de las ayudas concedidas, de las desestimatorias y no concedidas, con indicación en su caso de la puntuación otorgada a cada una de ellas en función de los criterios de valoración previstos y de los motivos de desestimación y no concesión. En caso de que no se hayan presentado solicitudes o ninguna de las presentadas llegue por los motivos contemplados en estas bases a la fase de concurrencia o a la puntuación mínima para concurrir se declarará desierta la convocatoria.

3. En la resolución de otorgamiento podrán establecerse condiciones particulares cuando, por la naturaleza específica de los proyectos u otras circunstancias concurrentes, se estime conveniente, con el fin de aplicar y adecuar a cada caso lo dispuesto en el decreto foral o en la normativa contemplada en la convocatoria correspondiente.





4. Eskaturiko dirulaguntza eman, ezetsi edo eman ez izana adierazten duen ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie. Deialdiko laguntzak esleitu gabe uzten dituen ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta, gainera, onartu ez diren eskabideak aurkeztu dituzten interesdunei jakinaraziko zaie.

5. Ebazpena jakinarazi ondoren, hamar (10) eguneko epea izango dute onuradunek ebazpena onartzeko, eta epe hori berenberegiko adierazpenik egin gabe igarotzen bada, ebazpena isilbidez onartu dela ulertuko da.

6. Eskabideei buruzko ebazpena emateko eta jakinarazteko epea sei (6) hilabetekoa izango da gehienez, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatuta. Epe horretan ebazpenik jakinarazten ez bada, eskaera ezetsizat joko da, administrazio-isiltasuna dela eta.

4. La resolución por la que se proceda a la concesión, desestimación o no concesión de la subvención solicitada se notificará a las personas interesadas. La resolución que declare desierta la convocatoria se publicará en el Boletín Oficial de Bizkaia y, además, se notificarán a las personas interesadas de haberse presentado solicitudes que no hayan sido admitidas.

5. Notificada la resolución las personas beneficiarias dispondrán de un plazo de diez (10) días hábiles para su aceptación, transcurrido el cual sin haberse producido manifestación alguna se entenderá tácitamente aceptada.

6. El plazo máximo para resolver y notificar la resolución del procedimiento no podrá exceder de seis (6) meses contados desde la finalización del plazo para presentar solicitudes. Transcurrido este plazo sin haberse notificado la resolución, se entenderá desestimada la solicitud por silencio administrativo.

19. oinarria. *Errekurtsoak.*

1. Ebazpenak administrazio-bidea agortzen du, eta, 39/2015 Legearen 114., 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoaren arabera, interesdunak aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango dio Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari, hilabeteko (1) epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

2. Era berean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahalko da Bilboko Instantzia Auzitegiko Administrazioarekiko

Base 19. *Recursos.*

1. La resolución agota la vía administrativa y, de acuerdo con lo dispuesto en los artículos 114, 123 y 124 de la Ley 39/2015, podrá la persona interesada interponer recurso potestativo de reposición ante la diputada foral de promoción económica en el plazo de un (1) mes a contar desde el día siguiente a la notificación de la resolución.

2. Asimismo, podrá interponerse recurso contencioso administrativo ante la Sección de lo Contencioso Administrativo del





Auzietako Sekzioaren aurrean, bi (2) hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatuta, kontuan harturik zer ezartzen duen Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

3. Ezin izango dira bi errekurtsok aldi berean jarri.

Tribunal de Instancia de Bilbao, en el plazo de dos (2) meses contados desde el día siguiente a aquél en que reciba la correspondiente notificación, en los términos contemplados por la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

3. No será posible simultanear ambos recursos.

20. oinarria. *Dirulaguntzari uko egitea.*

1. 34/2010 Foru Dekretuaren 48.3. artikuluan arautzen denarekin bat, onuradun gertatu den pertsona batek dirulaguntzari uko egiten badio, dirulaguntza ematen duen organoak erabaki dezake zerrendan hurrengo datozen eskatzaileei ematea (hurrenkeraren puntuazioaren arabera), baldin eta nahikoa kreditu geratu bada aske kasuan kasuko eskabideei erantzuteko.

2. Dirulaguntza ematen duen organoak aukera horren berri emango die pertsona edo erakunde interesdunei, dirulaguntzaren proposamena onar dezaten, hamar (10) egun balioduneko epean; epe hori ezin da luzatu. Behin eskatzaileek proposamena onartuta, administrazio-organok dirulaguntza emateko egintza emango du, eta haren jakinarazpena egingo du.

3. Uko egitea aurkezteko gehieneko epea hamar (10) egun baliodunekoa izango da, interesdunari dirulaguntzaren proposamena jakinarazten zaionetik hasita. Epe hori igarota, hortik aurrera uko egiterik gertatzen bada, dirulaguntza emateko

Base 20. *Renuncia a la subvención.*

1. De acuerdo con el supuesto regulado en el artículo 48.3 del Decreto Foral 34/2010, en caso de renuncia a la subvención de alguna de las personas beneficiarias, el órgano concedente podrá acordar la concesión de la subvención a las personas solicitantes siguientes en orden de puntuación, siempre y cuando se haya liberado crédito suficiente para atender las solicitudes de que se trate.

2. El órgano concedente comunicará esta opción a las personas interesadas, a fin de que acepten la propuesta de subvención en el plazo improrrogable de diez (10) días hábiles. Una vez aceptada la propuesta por las personas solicitantes, el órgano administrativo dictará el acto de concesión y procederá a su notificación.

3. El plazo máximo para poder presentar una renuncia será de diez (10) días hábiles desde la notificación de la propuesta de subvención a la persona interesada. Transcurrido ese plazo, cualquier renuncia tendrá la consideración de incumplimiento





baldintzak ez direla bete joko da.

de las condiciones por las que se ha otorgado la subvención.

4. Uko egiteengatik askatutako kreditua ez da esleituko, esleipenak kontabilizatzea ezinezkoa bada Ogasun eta Finantzetako foru diputatuaren urteroko foru aginduak kontabilitate ekitaldia itxi duelako, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren testu bategina garatzen duen Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 169/2014 Foru Dekretuaren 48. artikulua aplikatuz.

4. No se procederá a la adjudicación del crédito liberado por las renunciaciones cuando no sea posible contabilizar las adjudicaciones por el cierre del ejercicio contable acordado mediante Orden Foral de la persona Diputada Foral de Hacienda y Finanzas en aplicación del artículo 48 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 169/2014, por el que se aprueba el Reglamento General Presupuestario del Territorio Histórico de Bizkaia, de desarrollo del Texto Refundido de la Norma Foral General Presupuestaria.

21. oinarria. *Dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea.*

Base 21. *Modificación de la resolución de concesión.*

1. Pertsona onuradunek, diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu baino lehen, baimena eska diezaioke Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari, diruz lagundutako jardueraren ebazpenean aldaketak egin ahal izateko, hala nola, finkatutako epeak luzatzea, emandako zenbatekoa murriztea edo jarduera osatzen ekintzak aldatzea. Aldaketa horiek baimenduko dira ezohiko inguruabarrak daudenean edo jarduera ondo gauzatzeko beharrezkoak direnean, betiere dirulaguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada eta hirugarren pertsonen eskubideei kalte egiten ez bazaie. Aldaketa-eskaerak diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu baino hilabete (1) lehenago aurkeztu beharko dira gutxienez.

1. Las personas beneficiarias podrán solicitar a la diputada foral de Promoción Económica, antes de que concluya el plazo para la realización de la actividad subvencionada, modificaciones de la resolución de concesión que supongan ampliación de los plazos fijados, reducción del importe concedido o alteración de las acciones que se integran en la actividad, que serán autorizadas cuando traigan su causa en circunstancias imprevistas o sean necesarias para el buen fin de la actuación, siempre que no se altere el objeto o finalidad de la subvención y no se dañen derechos de terceros. Las solicitudes de modificación se deberán presentar con una antelación mínima de un (1) mes sobre la fecha finalización del plazo para la realización de la actividad subvencionada.





2. Ekonomia Sustatzeko foru diputatuak ofizioz alda dezake dirulaguntza emateko ebazpena, onuradunari entzunaldia eman ondoren eta funtsak aplikatu aurretik; horretarako, bi baldintza hauek bete behar dira: batetik, laguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzen aldaketek ezin izango dute eragotzi edo oztopatu laguntzaren bidez lortu nahi zen interes publikoa, eta, bestetik, ezingo zaio kalte ekonomikorik eragin onuradunari.

3. Dirulaguntzaren onuradunak, berak aurkeztutako justifikazioan, adierazten bada aldaketa batzuk egon direla dirulaguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzetan, dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea ekar lezaketenak, eta aldaketa horiek guztiak onartzeko ez bada bete aurretik bete beharreko baimen administratiboko izapidea, orduan, dirulaguntza eman duen organoak onartu egin dezake aurkeztutako justifikazio hori, betiere onartze horrek ez badie kalterik eragiten hirugarrenen eskubideei; hala ere, horrek ez du salbuesten pertsona onuraduna 5/2005 Foru Arauaren arabera izan ditzakeen zehapenetatik.

2. La diputada foral de promoción económica podrá modificar de oficio la resolución de concesión, previa audiencia de la persona interesada y antes de la aplicación de los fondos, cuando la alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión impida o dificulte la consecución del interés público perseguido y no se irroguen perjuicios económicos a la persona beneficiaria.

3. Cuando la persona beneficiaria de la subvención ponga de manifiesto en la justificación que se han producido alteraciones de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la misma que hubieran podido dar lugar a la modificación de la resolución, habiéndose omitido el trámite de autorización administrativa previa para su aprobación, el órgano concedente de la subvención podrá aceptar la justificación presentada, siempre y cuando tal aceptación no suponga dañar derechos de terceros, y sin que ello exima a la persona beneficiaria de las sanciones que puedan corresponder con arreglo a la Norma Foral 5/2005.

22. oinarria. *Emandako dirulaguntzen publizitatea.*

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 20. artikuluan xedatutakoa beteko da. Horretarako, Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen emandako dirulaguntzak argitaratuko dira artikuluko horretan xedatutakoaren arabera. Halaber, dirulaguntza eman den urte

Base 22. *Publicidad de las subvenciones concedidas.*

Se dará cumplimiento a lo dispuesto en el artículo 20 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones mediante la publicación de las subvenciones concedidas en la Base de Datos Nacional de Subvenciones según lo dispuesto en el citado artículo. Asimismo, antes del fin del





naturala amaitu ondorengo lehen hiruhilekoa amaitu baino lehen, Ekonomia Sustatzeko Sailak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko ditu deialdi publiko honen ondorioetarako emandako dirulaguntzak, honako hauek adierazita: deialdia, aurrekontuko zer programari eta kredituri egozten zaizkion, onuradunaren izena edo sozietate-izena eta haren identifikazio fiskaleko zenbakia, emandako zenbatekoa, dirulaguntzaren helburua edo helburuak, eta diruz lagundutako programak edo proiektuak. Urte askotako dirulaguntzen kasuan, emandako zenbateko osoa eta urtekoen banaketa.

primer trimestre posterior al vencimiento del año natural de concesión de la subvención, el Departamento de Promoción Económica publicará en el “Boletín Oficial de Bizkaia” las subvenciones concedidas a los efectos de esta convocatoria pública con expresión de la convocatoria, el programa y crédito presupuestario al que se imputen, nombre o razón social de la persona beneficiaria con su número de identificación fiscal, cantidad concedida, finalidad o finalidades de la subvención, con expresión, en su caso, de los distintos programas o proyectos subvencionados. En caso de subvenciones plurianuales, importe total concedido y distribución de anualidades.

Hori guztia, hargatik eragotzi gabe organo eskudunek Bizkaiko Foru Aldundiaren gardentasun-atarian (Bizkaia Gardena) egiten dituzten argitalpenak, Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua aplikatuz (aurrerantzean 1/2016 Foru Araua).

Todo ello sin perjuicio de las publicaciones que los órganos competentes realicen en el portal de transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, Bizkaia Gardena, en aplicación de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de transparencia de Bizkaia (en adelante Norma Foral 1/2016).

23. oinarria. *Onuradunak eman zaion dirulaguntzaren publizitatea egitea.*

Base 23. *Difusión de la subvención concedida por la persona beneficiaria.*

Onuradunek diruz lagundutako jarduketaren finantzaketa publikoaren publizitatea egin beharko dute. Horretarako, lagundutako jarduketaren zabalkunde publikorako egiten dituzten material, argitalpen eta ekitaldi guztietan, jasotako laguntza aipatu beharko dute era honetan: «Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatu du proiektu hau, 2026eko 3i Programaren barruan / Este proyecto ha sido financiado por la Diputación Foral de Bizkaia dentro del Programa de 3i 2026»

Las personas beneficiarias deberán dar publicidad al carácter público de la financiación de la actuación subvencionada mediante la mención de la ayuda recibida y la inclusión, en lugar visible, de la expresión «Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatu du proiektu hau, 2026eko 3i Programaren barruan / Este proyecto ha sido financiado por la Diputación Foral de Bizkaia dentro del Programa 3i 2026» junto al logotipo de la Diputación Foral de Bizkaia en todos los materiales, publicaciones o eventos para





Bizkaiko Foru Aldundiaren logotipoa ere jarri beharko dute, erraz ikusteko leku batean.

divulgación pública de las actuaciones subvencionadas.

24. oinarria. *Jakinarazpen elektronikoa.*

Base 24. *Notificación electrónica.*

1. Erakunde interesdunei egindako jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bidez egingo dira, 39/2015 Legean aurreikusitakoaren arabera.

1. Las notificaciones realizadas a las entidades interesadas se realizarán por medios electrónicos, de acuerdo con lo previsto en la Ley 39/2015.

2. Bitarteko elektronikoen bidezko jakinarazpenak Bizkaiko Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoan agertuz egingo dira ([https:// www.ebizkaia.eus](https://www.ebizkaia.eus)) araudi bi hauetan ezarritakoaren arabera: Bizkaiko Foru Aldundiaren 62/2015 Foru Dekretua, maiatzaren 5koa, Administrazio Elektronikoari buruzkoa, eta Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuaren 4841/2016 Foru Agindua, ekainaren 6koa, jakinarazpenak eta komunikazioak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan agertzeko sistemaren bidez egiteari buruzkoa.

2. Las notificaciones por medios electrónicos se practicarán mediante comparecencia en la Sede Electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia (<https://www.ebizkaia.eus>), de conformidad con lo establecido en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 62/2015, de 5 de mayo, de Administración Electrónica, así como en la Orden Foral de la diputada foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales 4841/2016, de 6 de junio, sobre la práctica de las notificaciones y comunicaciones por medio del sistema de comparecencia en la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia.

3. Egindako jakinarazpen elektronikoak eskuragarri jartzeari buruzko abisuak eskabidean aurkeztutako helbide elektronikora bidaliko dira, teknikoki posible denean. Horretarako, eskaera bete ondoren, ofizioz eskumena duen organo edo unitateak alta emango dio helbide elektroniko horri Bizkaiko Foru Aldundiaren prozeduren katalogoko dirulaguntzen prozedura honetarako aipatutako egoitza elektronikoaren abisu-sisteman. Abisu horiek ez dute, inola ere, jakinarazpen-ondoriorik izango, eta horiek ez goteak ez

3. Los avisos de puesta a disposición de las notificaciones electrónicas practicadas se remitirán a la dirección de correo electrónico aportada en la solicitud cuando técnicamente sea posible. Para ello, una vez cumplimentada la solicitud, por parte del órgano o unidad competente de oficio se dará de alta dicha dirección electrónica en el sistema de avisos de la mencionada sede electrónica para este procedimiento de subvenciones del catálogo de procedimientos de la Diputación Foral de Bizkaia. Estos avisos no tendrán, en ningún





du eragotziko jakinarazpena guztiz baliozkotzat jotzea.

4. Jakinarazpenak egindakotzat joko dira edukira sartzerakoan. Jakinarazpena eskura jartzen denetik hamar egun natural igaro eta edukia eskuratzen ez bada, baztertu egin dela ulertuko da, eta jakinarazpenaren izapidea egintzat joko da.

caso, efectos de notificación practicada y su falta no impedirá que la notificación sea considerada plenamente válida.

4. Las notificaciones se entenderán practicadas en el momento en que se produzca el acceso a su contenido. Cuando transcurran diez días naturales desde la puesta a disposición de la notificación sin que se acceda a su contenido, se entenderá rechazada, dándose por efectuado el trámite de notificación.

IV. TITULUA

Gauzatzea, justifikatzea eta kontrola

25. oinarria. *Eragin pizgarria eta gauatzeko epea.*

1. 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 6. artikuluan ezarritakoa betez, dirulaguntza horien eragin pizgarria bermatzeko, diruz lagundutako jarduerak edo proiektuak eskabideak aurkeztu ondoren hasi beharko dira eta 2027ko abenduaren 31 baino lehen amaitu.

2. Ekonomia Sustatzeko foru diputatuak gauatzeko epea luzatu ahal izango du, hurrengo apartatuetan adierazitakoaren arabera.

3. Onuradunak gauatzeko epea luzatzeko eskatu ahal izango du, honako baldintza

TÍTULO IV

Ejecución, justificación y control

Base 25. *Efecto incentivador y plazo de ejecución..*

1. En cumplimiento de lo establecido en el artículo 6 del Reglamento (UE) n.º 651/2014, para garantizar el efecto incentivador de estas subvenciones las actividades o proyectos subvencionados deberán iniciarse después de la presentación de las solicitudes y finalizarse con anterioridad al 31 de diciembre de 2027.

2. La diputada foral de Promoción Económica podrá otorgar una ampliación del plazo de ejecución en los términos y de acuerdo con lo indicado en los apartados siguientes.

3. La persona beneficiaria podrá solicitar la ampliación del plazo de ejecución





hauek betez gero:

a) Alegatutako arrazoia gertatu eta izandako edo izan daitekeen atzerapena egiaztatu ahal izateko eskatu beharko da berehala, eta, nolana ere, gauzatzeko epea amaitu baino gutxienez hilabete bat (1) lehenago.

b) Gauzatzeko epea luzatzea eragin duen gerora sortutako arrazoia adierazi beharko da, ezin zaiona egotzi onuradunaren doloari, erruari edo zabarkeriari.

c) Ustekabeko kasua eta ezinbesteko kasua, halakorik gertatuz gero, kontuan hartuko dira eskatzen den luzapenari buruz ebazteko.

d) Eskabidearekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dira: alegatutako arrazoia egiaztatzen duen dokumentazioa, izandako edo izan beharreko atzerapena egiaztatzen eta justifikatzen duen dokumentazioa, eta, ondorioz, eskatutako luzapen-epea.

e) Dirulaguntza kudeatzen duen zerbitzuak jasotako eskaria ulertzeko egokitzat jotzen duen bestelako dokumentazioa eskatu ahalko du.

f) Ez da baimenduko alegatutako eta egiaztatutako atzerapena baino gehiago, betiere luzapen horrek emandako dirulaguntzaren helburua betetzea ahalbidetzen badu eta hirugarrenen eskubideei kalterik egiten ez badie.

4. Hauxe da gehienez ere egikaritze epearen luzapena 12 hilabete.

cumpliendo las siguientes condiciones:

a) Deberá solicitarse de manera inmediata a que se produzca la causa alegada y se pueda acreditar la demora sufrida o que pueda sufrirse y, en todo caso, con una antelación mínima de un (1) mes sobre la fecha de finalización del plazo de ejecución.

b) Deberá indicarse la causa sobrevenida que motiva la ampliación del plazo de ejecución y que no puede ser imputable al dolo, culpa o negligencia de la persona beneficiaria.

c) El caso fortuito y la fuerza mayor, de concurrir, serán factores que se tendrán en cuenta para resolver sobre la ampliación que se solicite.

d) La solicitud deberá venir acompañada de la documentación acreditativa de la causa alegada, de la documentación que acredite y justifique la demora sufrida o a sufrir y, en consecuencia, el plazo de ampliación solicitado.

e) El Servicio que se encarga de la gestión de la subvención podrá requerir cualquier otra documentación que estime conveniente para la comprensión de la solicitud recibida.

f) No se otorgará una ampliación que vaya más allá de la demora alegada y acreditada y siempre que dicha ampliación permita cumplir la finalidad de la subvención concedida y no perjudique derechos de terceros.

4. La ampliación máxima del plazo de ejecución que se podrá otorgar es de 12 meses.





5. Eskatutako luzapena ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea hilabete (1) da, eskaera bulego birtualean aurkezten denetik. Epe horretan berariazko ebazpenik jakinarazi ez bada, eskaera ezetsi egin dela ulertuko da.

5. El plazo máximo para resolver y notificar sobre la ampliación solicitada es de un (1) mes desde la presentación de la solicitud en la oficina virtual. Transcurrido el mismo sin haberse notificado resolución expresa se entenderá desestimada la petición.

26. oinarria. *Justifikazio-epea.*

Base 26. *Plazo de justificación.*

1. Onuradunek organo instrukzio-egileari aurkeztu beharko diote ezarritako baldintzak bete direla eta dirulaguntza emateko egintzan aurreikusitako helburuak lortu direla egiaztatzen duen justifikazioa, “gauzatzeko epea” 25. oinarrian ezartzen den diruz lagundutako jarduera edo proiektua gauzatzeko epea bukatzen denetik bi (2) hilabeteko epean, oinarri hauetan ezarritako moduan.

1. Las personas beneficiarias deberán presentar ante el órgano instructor la justificación del cumplimiento de las condiciones impuestas y de la consecución de los objetivos previstos en el acto de concesión de la subvención, en un plazo de dos (2) meses a contar desde la finalización del plazo máximo para realización de la actividad o proyecto subvencionado, establecido en la base 25 “*plazo de ejecución*”, mediante la forma establecida en las presentes bases.

2. Hala ere, onuradunek modu boluntarioan aurkeztu ahalko dute azken justifikazioa horretarako ezarritako epea hasi aurretik.

2. No obstante, las personas beneficiarias podrán voluntariamente presentar la justificación final con anterioridad al inicio del plazo establecido para ello.

3. Dirulaguntzen onuradun diren erakundeek, dirulaguntzaren azken justifikazioaz gainera, bitarteko justifikazio bakarra aurkeztu dezakete beren borondatez, laguntza onartu eta hurrengo egunean hasiko den eta 2027ko irailaren 30a, barne, amaituko den epean, oinarri hauetan ezarritako moduan. Bitarteko justifikazioak bakarrik izapidetuko dira onuradunak emandako dirulaguntza kalkulatzeko onartutako oinarri diruz lagungarriaren % 50etik gorako zenbatekoa

3. Además de la justificación final de la subvención, las entidades beneficiarias de las ayudas podrán presentar voluntariamente una única justificación intermedia, en un plazo que se iniciará el día siguiente a la aceptación de la ayuda y finalizará el 30 de septiembre de 2027, inclusive, mediante la forma establecida en las presentes bases. Las justificaciones intermedias sólo serán tramitadas si la beneficiaria justifica un importe superior al 50% de la base subvencionable admitida





justifikatzen badu.

4. Egikaritze epea luzatzea onartu bada, organo izapidegileari azken justifikazioa aurkezteko epea hiru (3) hilabetekoa izango da. Epe hori zenbatzen hasiko da epea luzatzeko emakida ebazpenean hura egiteko ezarritako epea bukatzen denean.

5. Ekonomia Sustatzeko foru diputatuak azken justifikazioa aurkezteko ezarritako epea luzatu ahal izango du, gehienez ere haren erdia, betiere alegatutako inguruabarrek hala gomendatzen badute eta horrekin hirugarrenen eskubideei kalterik egiten ez bazaie. Eskaera eta luzapenari buruzko erabakia justifikazio-epea amaitu baino lehen egin beharko dira. Alegatutako arrazoia gertatu eta berehala eskatu beharko da, eta, nolanahi ere, justifikazio-epea amaitu baino gutxienez hilabete (1) lehenago. Berariazko ebazpenik jakinarazten ez bada, eskaera ezetsi egin dela ulertuko da.

6. Justifikazioa egiteko epea igaro eta dagokion instrukzio-organoaren aurrean ez bada aurkeztu justifikaziorik, organo horrek errekerimendua egingo dio erakunde onuradunari, hamabost (15) egun baliodunen epean aurkez dezan, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera. Epe hori ezingo da luzatu. Justifikazioa ez bada ezarritako epean aurkezten, dirulaguntza itzultzea eskatuko zaio onuradunari eta, gainera, Dirulaguntzen Foru Arauaren 37. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen diren gainerako

para el cálculo de la subvención otorgada.

4. En caso de haberse otorgado una ampliación del plazo de ejecución, el plazo para presentar la justificación final ante el órgano instructor será de tres (3) meses a contar desde la finalización del plazo establecido para su realización en la resolución de concesión de la ampliación de plazo.

5. La diputada foral de Promoción Económica podrá otorgar una ampliación del plazo establecido para la presentación de la justificación final, que no exceda de la mitad del mismo y siempre que las circunstancias alegadas la aconsejen y con ello no se perjudiquen derechos de terceros. Tanto la petición, como la decisión sobre la ampliación, deberán producirse, en todo caso, antes del vencimiento del plazo de justificación. Deberá solicitarse de manera inmediata a que se produzca la causa alegada y, en todo caso, con una antelación mínima de un (1) mes sobre la fecha de finalización del plazo de justificación. Si no se notificara resolución expresa, se entenderá desestimada su petición.

6. Transcurrido el plazo establecido de justificación sin haberse presentado ante el órgano a cargo de la instrucción, éste requerirá a la entidad beneficiaria para que en un plazo improrrogable de quince (15) días hábiles a contar a partir del siguiente a la notificación sea presentada. La falta de presentación de la justificación en el plazo establecido llevará consigo la exigencia de reintegro y demás responsabilidades establecidas en los artículos 37 y siguientes de la Norma Foral 5/2005.





erantzukizunak eskatuko zaizkio.

27. oinarria. *Azpikuntratazioa.*

1. Honako hau joko da azpikontrataziotzat: onuradunak hirugarren pertsona batekin hitzartzen duenean dirulaguntzaren xedeko jarduera oso-osorik edo zati bat egitea. Azpikontratazioaren kontzeptu horretatik kanpo gelditzen da onuradunak diruz lagundutako jarduera bere kabuz gauzatzeko egin behar dituen gastuen kontratazioa. Aurrekoaren ondorioz, honako hauek ez dira azpikontrataziotzat joko: makineria, ekipamendua eta material suntsigarria erostea, dirulaguntzaren xedeko jardueraren barruko zeregin bereziak egiteko kanpoko zerbitzuen kontratazioa eta dirulaguntzaren xedeko jardueraren bestelako gastu osagarriak.

2. Onuradunak ezin izango du azpikontratu diruz lagundutako jarduera, ez zati batean, ez osorik. Beraz, azpikontratu horietatik eratorritako gastuak ez dira diruz lagunduko.

28. oinarria. *Dirulaguntzak justifikatzea.*

1. Justifikazio-kontu baten bitartez frogatuko du onuradunak betetzen dituela ezarritako baldintzak eta lortu direla dirulaguntza emateko egintzan aurreikusitako helburuak.

2. Dirulaguntzaren justifikazioa Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren

Base 27. *Subcontratación.*

1. Se entiende que una persona beneficiaria subcontrata cuando concierta con terceras personas la ejecución total o parcial de la actividad que constituye el objeto de la subvención. Queda fuera de este concepto la contratación de aquellos gastos en que tenga que incurrir la persona beneficiaria para la realización por sí misma de la actividad subvencionada. En consecuencia, no se entenderá como subcontratación la adquisición de maquinaria, equipamiento y material fungible, la contratación de servicios externos para realización de tareas particulares dentro de la actividad objeto de subvención y otros gastos auxiliares a la actividad objeto de la subvención.

2. La persona beneficiaria no podrá subcontratar, ni parcial ni totalmente, la actividad subvencionada. Por tanto, los gastos derivados de estos subcontratos no serán subvencionables.

Base 28. *Justificación de las subvenciones.*

1. La justificación por la persona beneficiaria del cumplimiento de las condiciones impuestas y de la consecución de los objetivos previstos en el acto de concesión de la subvención revestirá la modalidad de cuenta justificativa.

2. La justificación de la subvención deberá tramitarse a través de la oficina virtual del





bidez izapidetu behar da

Departamento de Promoción Económica

3. Justifikazio-kontuak honako dokumentazio hau jaso behar du:

3. La cuenta justificativa contendrá la siguiente documentación:

a) Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualak sortutako justifikazio telematikoa. Justifikazio horrek dirulaguntza jaso duen jardueraren gastuen zerrenda izan behar du eta hartzekoduna, agiria, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala denean, ordainketaren data identifikatu behar dira. Era berean, langileen barne-gastuen kasuan, justifikazio horrek diruz lagundutako proiektuan edo jardueran esku hartzen duten pertsonen zerrenda, emandako orduak eta ordu-kostua kalkulatzeko datuak jasotzen ditu.

a) Justificación telemática generada por la oficina virtual del Departamento de Promoción Económica. Esta justificación contiene la relación de gastos de la actividad subvencionada, con identificación del acreedor y del documento, su importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de pago. Asimismo, en caso de gastos internos de personal esta justificación contiene la relación de personas que intervienen en el proyecto o actividad subvencionada, las horas dedicadas y los datos para el cálculo de su coste horario.

b) Justifikazio memoria webguneko ereduaren arabera. Diruz lagundutako proiektuari edo jarduerari egotzitako diru-sarreraren, dirulaguntzen, laguntzen eta finantzaketa propioaren zerrenda jasoko du, bai eta gastuetan hasierako aurrekontuarekiko izandako desbideratzeak ere, hala badagokio. Justifikazio-memoria hau datu horiekin aurkezteak berekin dakar, halaber, onuradunaren ordezkari izateko ahalmen nahikoa duen pertsona batek zinpeko adierazpena egitea diruz lagundutako proiektuari edo jarduerari egotz dakiokeen beste diru-sarrerarik ez dagoela, aipatutako memorian adierazitakoez gain.

b) Memoria de justificación, según modelo disponible en la web, que incluirá una relación de ingresos, subvenciones, ayudas y financiación propia imputados al proyecto o actividad subvencionada, así como las desviaciones acaecidas en los gastos respecto al presupuesto inicial, en su caso. La presentación de esta memoria de justificación con esos datos implica asimismo que se declara de forma jurada por una persona con poder suficiente para representar a la persona beneficiaria que no existen otros ingresos imputables al proyecto o actividad subvencionada al margen de los indicados en la citada memoria.

c) Justifikazioa egin aurreko bi hilabeteetako bateko Langile Izendun Zerrenda LIZ, proiektuan parte hartzen duten enpresako langileak jasotzen duena. Enpresari lotutako langile autonomoak badaude, pertsona bakoitzaren azken Kotizazio-Oinarrien

c) Relación Nominal de Trabajadores/as RNT en la que figuren las personas trabajadoras de la empresa que participan en el proyecto, de alguno de los dos meses inmediatamente anteriores al de fecha de justificación. En el caso de existir personas





Txostena (KOT) ere (justifikazioa egin aurreko bi hilabeteetako bateko kotizazioa barne) erantsiko du. Beste kotizazio-araubide batzuen mendeko pertsonen dagokienez, Gizarte Segurantzaren araubide orokorreko oinarriarekin parekatutako oinarri bat kalkulatzeko ahalbidetzen duten agiriak.

trabajadoras autónomas adscritas a la empresa se aportará además por cada persona el Informe de Bases de Cotización (IBC) que incluya la cotización de alguno de los dos meses inmediatamente anteriores al de fecha de justificación. En el caso de personas adscritas a otros regímenes de cotización se aportará documentación que permita el cálculo de una base asimilada a la del régimen general de la Seguridad Social.

d) Legezko baldintzak betetzen dituzten egiaztaketarako gastuen fakturak edo dokumentu baliokideak merkataritza trafiko juridikoan edo administrazio eraginkortasuna dutenak. Gaztelania, euskara edo ingelesa ez diren hizkuntzetan egindako fakturekin batera, hizkuntza horietako batera egindako itzulpena aurkeztu beharko da. Leasing kasuetan, finantza errentamenduaren kontratuaren kopia, hornitzaileak finantza erakundeari egindako fakturaren kopia eta erosteko azken aukera hondar-balioarekin burutzeko konpromisoaren agiria (baina ez da aurkeztu beharrik izango finantza errentamenduaren kontratuan islatzen bada).

d) Las facturas o documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa, que cumplan con todos los requisitos legales. Las facturas en idiomas distintos del castellano, euskera o inglés deberán estar acompañadas de su correspondiente traducción a alguno de estos idiomas. En los casos de leasing, copia del contrato de arrendamiento financiero, copia de la factura de la entidad proveedora a la entidad financiera y un documento de compromiso de ejecución de la opción de compra final por el valor residual (no necesario en el caso de que la obligación de que la entidad beneficiaria de la ayuda adquiera el activo al término del arrendamiento financiero quede reflejada en el contrato).

e) Fakturak ordaindu izanaren bankuko ziurtagiriak. Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea. Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartzeko aplikatzekoa den araudi sektorialean aurreikusitako ordainketa-epeak bete beharko dituzte ordainketek, edo, halakorik ezean, 3/2004 Legean ezarritakoak.

e) Justificantes bancarios de pago de las facturas. No se admitirán pagos en efectivo. Para ser considerados gastos subvencionables los abonos deberán cumplir los plazos de pago previstos en la normativa sectorial que resulte de aplicación, o, en su defecto, en los establecidos en la Ley 3/2004.

f) Ondasun higiezinak eskuratuz gero, behar bezala egiaztatua eta dagokion erregistro ofizialean inskribatua dagoen tasatzaile

f) En el caso de adquisición de bienes inmuebles, certificado de tasador independiente debidamente acreditado e





independentearen ziurtagiria.

inscrito en el correspondiente registro oficial.

f) Hiru eskaintzak edo ordeko dokumentazioa, zehazki, 5/2005 Foru Arauaren 29.3 artikulua aplikatuz, onuradunak eskatu behar izan duena edo, sektore publikoko kontratuen legearen mende egonez gero, araudi hori betetzen dela egiaztatzen duen dokumentazioa.

f) Las tres ofertas o documentación sustitutiva que, en aplicación del artículo 29.3 de la Norma Foral 5/2005, deba haber solicitado la persona beneficiaria o, en el supuesto de estar sujeta a la ley de contratos del sector público, documentación justificativa del cumplimiento de dicha normativa.

i) Dirulaguntzen onuradunek betekizunak eta betebeharrak betetzea eta mantentzea justifikatzeko memoria.

i) Memoria de justificación del cumplimiento y mantenimiento de requisitos y obligaciones de las beneficiarias de subvenciones.

Dirulaguntzen onuradunek baldintzak eta betebeharrak betetzen dituztela (berankortasuna, genero-berdintasuna, dirulaguntzaren hedatzea, hizkuntza koofizialen eta irudi/hizkuntza inklusiboaren erabilera, gardentasuna (hedatze aktiboa), ondasunak eta jarduera mantentzea) eta horiei eusten dietela justifikatzeko memoria Ekonomi Sustapen Sailaren web orrian (www.bizkaia.eus) ageri den ereduaren arabera aurkeztu beharko da.

Esta memoria de justificación del cumplimiento y mantenimiento de requisitos y obligaciones de las beneficiarias de subvenciones (morosidad, igualdad de género, difusión de la subvención, uso de lenguas cooficiales e imágenes/lenguaje inclusivo, transparencia (publicidad activa), mantenimiento de bienes y actividad) deberá presentarse de acuerdo con el modelo que figura en la página web del Departamento de Promoción Económica (www.bizkaia.eus).

j) Hedatze, gardentasun, hizkuntza koofizialen erabilera, genero berdintasun eta ordainketa-epeak betetzeari buruzko betebeharrak betetzen direla egiaztatzen duten txostenak eta agiriak.

j) Informes y documentos que acrediten el cumplimiento de obligaciones en materia de difusión, transparencia, uso de lenguas cooficiales, igualdad de género y cumplimiento de plazos de pago.

k) Aurkezpena, beren beregi emakida ebazpenean eskatzen dena.

k) Aquella cuya presentación se solicite expresamente en la resolución de concesión.

4. Gastuak justifikatzeko, fakturak eta merkataritzako trafiko juridikoan frogabalio baliokidea duten edo eraginkortasun

4. Los gastos se justificarán con facturas y demás documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil o





administratiboa duten gainerako dokumentuak aurkeztu beharko dira, Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez aurkezteko aukera ematen duten formatuetan.

